

[URUMEA](#)

Plan ugari aukeran Behemendik, Aste Santuko eskaintza turistikoan

Kronika - Erredakzioa 2021-03-31 00:00



Sagardogintzarekin lotutako hainbat plan proposatu dituzte, oporraldirako.

Proposatutako zortzi planetatik sei dira Urumea bailarakoak, oporraldi honetarako.

Urtero bezala, Aste Santuko oporraldirako turismo eskaintza osatu du Behemendik, Donostialderako; eta proposatutako zortzi planetatik, sei dira Urumea bailaran gozatzekoak.

Horrela, Chillida Leku museora bisita da proposatutako planetako bat, zabalik egongo baita Aste Santuan, bihartik astelehenera egunero, 10:00etatik 17:00etara. Une honetan, gainera, ohiko lanekin batera, ikusgai daude *Leges naturae* aldi baterako erakusketa, Eduardo Chillidaren obraren irakurketa berri bat eskaintzen duena; eta Louise Bourgeois artista frantziarraren *Eye Benches III* eskultura.

Sagardoarekin lotutako planak ere badaude tartean. Batetik, Sagardoetxeak Aste Santurako prestatu dituen plan bereziak: museoetara bitak, inguru naturaletan paseoak, sagardotegi edo jatetxeetan otorduak, sagardo eta pintxo dastaketak, bizikleta elektrikoetan ibilbideak... Guztiak daude ikusgai, sagardoarenlurraldea.eus web orrian. Sagardotegietan otorduak egitea ere proposatu du Behemendik. Horretarako, Sagardoa Routen online bilatzailea proposatu du: sagardoa.eus. Eta sagardoarekin bukatzeko, bisita interpretatuak eta sagardo dastaketak egiteko aukera izango da, Hernaniko lau sagardotegitan: Altzuetan, Itxas-Burun, Iparragirren eta Zelaian. 10:30etan hasi eta 11:30ak arte izango dira, alde zuzenetik erreserba eginda, hernani.eus webgunean.

Hernaniko hirigune historikoan ere egin daiteke bisita gidatua, Aste Santuan. Aste honetan, ostiraletik igandera izango da aukera, 11:30etan hasita, ordu eta laurdeneko bisita egiteko. Doakoa da, baina aurrez erreserbatzea gomendatu dute: 943 33 70 28 edo turismoa@hernani.eus. Gainera, zabalik egongo da turismo informazio puntua ere: ostiraletan eta larunbatean 10:15-14:15 eta 16:30-19:30 ordutegian; eta igandean, 11:00etatik 15:00etara.

Eta bailarako eskaintza osatzeko, egun batez erremontista izateko proposamena luzatu du, Galarretan. Ostegun eta larunbatero izango dira bisita gidatuak, 14:45etatik 16:00etara, eta galarreta-jaijai.com webgunean dago

informazio guztia.

Bailaratik harago, berriz, Oria ibaian kayak jaitsiera egitea proposatu du, batetik. Aginagatik Oriora egin daiteke, familian; eta hiru ordu eta erdikoa da jarduera, Orioko Arraunetxe zentroan elkartuta. Bertan, jarduera gehiago ere badaude aukeran: begi-bistan.eus webgunean dago informazio guztia.

Eta bestetik, Leitzarango bisitarien etxera joan daiteke: uraren interpretazio zentroan bisita gidatua, ibilbide tematikoak, bizikleten alokairua... 10:30etatik 18:00etara egongo da zabalik, egunero. Informazio guztia, web orrian: leitzaranoandoain.eus.

[Kultura Astigarraga Ereñotzu Hernani](#)

Kronika egunero, euskaraz eta doan jasotzen segi ahal izateko, Kronikalari gehiago behar dira, eta zer esanik ez, proiektu komunikatibo sendo eta profesional bat garatu nahi badugu.

Egin zaitez Kronikalari!

Erantzun ▼



Ikusienak



[Gaurtik ostiralera arte zabalik, udaleku irekietan zein kirol udalekuetan izena emateko epea](#)

Kronika - Erredakzioa
api 26, 00:00 [Hernani](#)



[Garaipena lortu zuen atzo Hernanik El Rion, eta finalerdietarako sailkatu da](#)

Kronika - Erredakzioa
api 26, 00:00 [Hernani](#)



[Juul literatur hauteskundeetan aukeratua, Alai Zubimendiren lana](#)

Kronika - Erredakzioa
api 26, 00:00 [Hernani](#)



[Ezustekoa Zinkoenean, gaur goizean](#)

Kronika - Erredakzioa
api 24 [Hernani](#)



[Langileen Nazioarteko Eguna dela eta, mobilizazioak antolatu dira larunbaterako](#)

Kronika - Erredakzioa
api 27, 00:00 [Urumea](#)



[Aho zabalik, larunbateko ikuskizunean](#)

Kronika - Erredakzioa
api 26, 00:00 [Astigarraga](#)

Kronika.eus

[Dobera Euskara Elkartea](#)

Larramendi kalea 11, Hernani

Tel.: 943 33 08 99 · 688 660 714 · kronika@kronika.eus



Codesyntaxek garatua





Gertuko informazioa, euskaraz

[AIARALDEA](#) [AIKOR](#) [ANBOTO](#) [ATARIA](#) [BALEIKE](#) [AIURRI](#) [ERRAN](#) [EUSKALERRIA IRRATIA](#) [GOIENA](#) [GUAIXE](#) [HIRUKA](#)
[KARKARA](#) [MAXIXATZEN](#) [PLAENTXIA](#) [ALEA](#) [28 KANALA](#) [ANTXETA](#) [BARREN](#) [ERLO TELEBISTA](#) [GEURIA](#) [GOIERRI TELEBISTA](#)
[KRONIKA](#) [MAILOPE](#) [NOAUA](#) [DEUSTUALDEA PREST](#) [TXINTXARRI](#) [URIOLA](#) [UZTARRIA](#) [AMEZTI](#) [OIZMENDI TELEBISTA](#)

[Gurean](#) [Plazanbazan](#) [Itap](#)

[Tokikom publizitatea](#)